



"HERE AND THERE". GARY STEVENS. MUGATXOAN 2002. © FUNDAÇÃO SERRALVES.



ARTELEKU (DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN) ETA FUNDAÇÃO SERRALVES (PORTO) ZENTROETAN ESTREINALDIAK, PROIEKTU ESPEZIFIKOAK, PIEZA GOGOANGARRIAK, LEHEN PIEZAK ETA OBRA BERRIKUSIAK AURKEZTUKO DIRA. AURKEZPEN HAUEK SEI ASTETAN GARATUKO DEN PROIEKTU BATEN BARRUAN IZANGO DIRA.

DENBORA HORRETAN, HAMABI PARTE HARTZAILE IZANGO DIRA ION MUNDUATE (EKAINAK 14-18), ANDRE GUEDES (EKAINAK 21-26), TINO SEHGAL + MARTEN SPANGBERG (EKAINAK 28 - UZTAILAK 2) ETA GRAND MAGASIN (UZTAILAK 5-9) ARTISTEKIN BATERA LANEAN, PARTE HARTZAILEOK PROIEKTU BANARI EHINGO DIOTE. GAUZAK ONGI DIRELA 2006KO EDIZIORAKO GUZTIZ AMAITUA EGON BEHAR LUKEENA.

ARTELEKU

26 EKAINA	16:30	SÁBADO POR LA TARDE EN GROS ANDRÉ GUEDES-ek koordinatua
	21:00	ASTRA TOUR (performance) ION MUNDUATE
29 30 EKAINA	21:00	PLASTIFICCIÓN, de LARRAITZ TORRES + EL CASO DEL ESPECTADOR MARÍA JEREZ
1 UZTAILA	20:00	DESDE EDURNE RUBIO
	21:00	TODOS LOS BUENOS ESPÍAS TIENEN MI EDAD JUAN DOMÍNGUEZ
2 UZTAILA	20:00 22:00	DESDE EDURNE RUBIO. + DEATH IS CERTAIN EVA MEYER KELLER
3 UZTAILA	20:00	DESDE EDURNE RUBIO.
	21:00	O TÂCHE(S) SUR 1 ONT ÉTÉ EFFECTUÉE(S) CORRECTEMENT GRAND MAGASIN

ARTELEKU. Kristobaldegi 14. 20014. Donostia - San Sebastián. www.arteleku.net
Sarrera librea. Erreserbak: T. 943 453 662 (9:00 - 20:00)

FUNDAÇÃO SERRALVES

4 UZTAILA	19:00	SIN TITULO TINO SEHGAL
5 6 7 UZTAILA	21:30	DESDE EDURNE RUBIO
7 UZTAILA	19:00 22:00	ASTRA TOUR (vídeo-instalazioa) ION MUNDUATE
8 UZTAILA	22:00	ASTRA TOUR (performance) ION MUNDUATE
11 UZTAILA	22:00	O TÂCHE(S) SUR 1 ONT ÉTÉ EFFECTUÉE(S) CORRECTEMENT, GRAND MAGASIN

FUNDAÇÃO SERRALVES. R. D. João de Castro, 210. 4150 - 417. Porto. www.serralves.pt
7,5 € (Astra Tour video: 2,5 €). Erreserbak: T. 0 226 156 584

*SÁBADO POR LA
TARDE EN GROS**ANDRÉ GUEDES-ek
koordinatua*

Donostiako Gros auzoaren morfologia eta nortasuna 1920an finkatu zen, orduan hiri-trazatu berri bat garatu baitzuten, hareatzaz osatutako eremu bat nabarmen zabalagotuz. Harrezkero, XX. mendean zehar eta gaur egun arte, Gros auzoan eraikitzen jarraitu dute. Gaur egun, eta auzoan izandako hiri eta arkitektura aldaketak bata bestearen atzetik etorri badira ere, Gros auzoa, herritarrentzat, “hiri maitagarri” bat da hiriaren barnean (horrelaxe ikusten du, esate baterako Everest argitaletxearen “Guía Donosti/San Sebastián” delakoak). Izaera berezi honen oinarrian, seguruenik, aldi berean erdigunean eta hirigune historikoarekiko aldirietan egotea dago; ezen era askotako mugak ditu, mugatxoak esanenezake, hortxe baititugu itsasoa (Zurriolako hondartza), Mirakruz Gaineko aldapa, trenbidea eta Urumea ibaia.

André Guedes-ek Gros auzoko hainbat eremu publikotako (kale, plaza eta antzekoetako) eguneroko bizipenen behatzea proposatzen die Mugatxoan 2004an partaide diren artistei. Behatze horren emaitzak interbentzioak produzitzea du helburu, hain zuzen erreferentzia izan zuten lokalean aurkezteko datorren 2004ko ekainaren 26an, larunbata, arratsaldean.

Eskerrak eman behar, bereziki, Donostiako bi hiritarri, Begoña del Teso eta Joxean Muñozzi.

*ANDRE GUEDES
(Lisboa)*

Arkitekturan lizentziatua Lisboako Unibertsitateko Arkitektura Fakultatean. Italiako Pistoletto Fundazioaren eta Hungariako Braziers Internacional-en artista egoiliarra. Bere lana hainbat erakusketatan azaldu du Portugalen. Vera Mantero eta Miguel Pereira koreografo portugaldarrekin lankidetzan aritu zen, bere obren kontzepzio espazialean.

ASTRA TOUR (2003-2004)

ION MUNDUATE

Sortzailea: Ion Munduate Amaia Urrea eta Ion Munduate Lankidetzak: Juan Loriente Laguntzaile artistikoa: Blanca Calvo Bideo-edizioa: Iurre Telleria (Moztu Filmak) Bideoeko soinu-banda: Charo Calvo (Wild Track) Koprodukzioa: Arsenic (Lausana), Arteleku (Donostia), Kultura eta Euskara Departamentua (Gipuzkoako Foru Aldundia), Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila, Teatre Garonne dans le cadre de MIRA! 2004 (Toulouse) eta Fundación Arte y Derecho, VEGAP (Madril).	Laneko estudiantetik ateratzea, proiektu berria pentsatzeko kokapena lerrarazten ahalegintzeko. Berehala sortu zen bidaiaren ideia. Auto bidaia bat Iberiar Penintsulan zehar, lehendik izenaren arabera aukeratuak nituen herriak zeharkatuz. <i>ASTRA TOUR</i> bi piezaz osatuta dago: bideo-instalazioa eta performancea. Ibilbideko herrien izenak zeinu gisako bat dira, pieza bien kontakizuna osatzeko. Instalazioaren dispositiboa bi pantailatan egiten den proiektzio sinkroniko eta segidako bat da, eta bertan bi ikuspegi ezberdin ikusten ditugu; egoera pribatu bat (barneko kamera) egoera publiko baten aurrean (kanpoko kamera), herriaren izenaren esanguraren baitan betiere. Eszenan gorputza eta beronen jardura dira gertatzen den guztiaren artikulatzaileak; ibilbidearen nondik norakoa azaltzeko, izen batzuk besterik ez. Horretarako turistaren tokia hartzen dut, bidaiatik bueltan egon den tokien izenak erakusten dituelarik diapositiba bidez. Ideia, beti-beti, esanguran zeharreko bidaia bat da. Filmak ez du dantza-pieza sortzen; izan ere, bideoan eta piezan hitzaren espazioa aktibatzea da lana.
--	---

“Esperientzia espazial ezberdin adina espazio dago. Kontakizun oro bidaia kontakizun bat da, espazioaren praktika bat”.

“Espazioa zera baita tokiarekiko, esana denean hitza bihurtzen den horixe”.

“Ibilbide oro, nolabait, desbideratu egiten da, tokien izenen eraginez, ezen hauek zentzua eskaintzen dute, tokira bertara iritsi arte aurrekusterik ez zegoen zentzua. Izen hauek ez-tokiak sortzen dituzte tokietan, igarobide bihurtzen dituzte”.

“Izen hauexek dira geografiaren gainean, bere zentzu literalean ulerturiko geografiaren gainean beste geografia bat, poetiko, galarazi edo onartu bat artikulatzeko eginkizuna ematen dietenak. Beste bidaia batzuk iradokitzen baitituzte”.

L'invention du quotidien. Michel de Certeau

ION MUNDUATE (Irun - 1969)

Dantzako prestakuntza Donostia, Madril eta Parisen eskuratu duen artista. 1994an Blanca Calvo ezagutu, eta elkarrekiko lankidetzak artistiko estuan arituko ziren 1997 arte. Honen emaitza ditugu *M M M M* (1995) eta *Sangre grande* (1996) piezak. 1998an Ángel Bados eta Txomin Badiola eskultoreek Artelekun emandako tailerrean parte hartu zuen. Esperientzia honen ostean, bere piezak sortzen eta lantzen hasiko zen: *Lucía con zeta* (1998), *Boj de largo* (2000) eta *Flyball* (2000). 1998az geroztik, Blanca Calvorekin batera *MUGATXOAN* proiektua zuzentzen du; hau tailer-programazio bat da, gaur egun eta Donostiako Artelekuren eta Portoko Fundação Serralves-en lankidetzarekin burutzen ari dena. 2002ko irailean *ASTRA TOUR* proiektua lantzen hasi zen; bideo-instalazioa, berau baita prozesuaren lehen fasea, 2003ko uztailean aurkeztu zen lehen aldiz Arsenic-en (Lausana), eta pieza eszenikoa, berriz, Theatre Garonne-n, MIRA 2004! izenekoaren barnean.

PLASTIFICCIÓN

LARRAITZ TORRES

Estreinaldia eta produkzioa
MUGATXOAN 2004

Autorretratuetan oinarritutako lan baten eszenaratzea da, hasiera batean plastikoa izan zen batena alegia (argazkia, lerro beltza, gorputza); beste prozesu mota bat bilatu beharraren eraginez, ni neu eta aukeratutako espazioa agertzen garelarik, lanaren beraren artikulatzaileak gara. Objektuek eta gorputzak instalazio baten antzera funtzionatzen dute.

Liluramendua, irudi finkoa (argazkiaren gelditasuna) bizia izatera nola iristen den ikustean: denboraren iragaitza islatzeko, aurkezpenean blokeatu egin behar da. Kantuek oraineko irudia biltzen dute, eta beronen izatea luzatzen.

Limurtzea, begirada azken muturreraino erakartzea, harik eta zentzugabe izatera ere iritsi ahal izan dadin arte. Idoloak, heroiak, bakar-bakarrik -eta batez ere- bere intimitateak egiten ditu diren bezalakoak.

LARRAITZ TORRES

(Irún - 1980)

Leioako Arte Ederren Fakultateko ikaslea. Ballet klasikoko eskolak Tatiana Torres-ekin 88-90 epean. Dantza garaikideko ikastaroak, honakookin: Silvia Hoyos-ekin 98an, Galibo estudioan 99-00 bitartean, Susana del Pino-rekin 00an, Idoia Zabaleta eta Mariaje Ariznavarretarekin 00-01-02 urteetan.

Burgosko V. Jaialdian aurkeztutako Susana del Pinoren *tears for fears* piezan parte hartu zuen. Leioako EHUK antolatutako Dantza Erakustaldian dantzari.

*EL CASO DEL
ESPECTADOR**MARÍA JEREZ*

Estreinaldia eta produkzioa
MUGATXOAN 2004

Mugagabea. Irudi bat irudi baten barnean, eta ...zera baten barnean, panpina errusiarrak bezalaxe. Denboralderdia ere eransten diot: bila itzazu zazpi ezberdintasunak. Telebista bat. Besaulki bat. Patinetan kamera. Kaosa.

Elkarrekin erlazioa duten bi denbora. Mulholland Drive. Patinen filmaren making offak kameran ikusten ez den errealitate berri bat sortzen du. Elkarrengandik independente izan ote litezke, bata bestearentzat izateari uzteke? Erabateko kaosa.

Neure buruari muga jarri behar diot, saiatuko naiz besaulki batetik istorio bat kontatzen, telebista batez eta patinetan kamera bat jarririk. Suspense liburuak. Fikzio fikzioaren fikzioa. Kixote Mantxako. Ikuspegi ezberdinen metaketa jorratuko dut. Zatiketa. Kaosa zera da, deszifratzeko dagoen ordena bat da (aurkakoen liburua).

Hilketak, krimenak, nortasunak... neuk egiten dut guztia. Masturbazioari edo irudimenari buruzko lana ote honakoa? Eta buelta ematen badiot, gai izango ote naiz ikuslearen irudimena nire eraikuntzaren erritmoan mugiarazteko?

MARÍA JEREZ
(Madrid - 1978)

996an hasi zen keinuaren antzerkia ikasten Madrilgo Ana Vázquez de Castro Antzerki Eskolan, diploma eskuratuz 1999an. Aldi berean, ikusizko arteak ikasten hasi zen: ikus-entzunezko komunikazioa, artearen historia, animaziozinea eta dantza. Madrilen aktore eta hainbat piezaren egile gisa lan egin ostean, Parisa jo zuen 2000ko urtean, *Laboratoire de l'Etude du Mouvement* egiteko École Internationale de Théâtre Jacques Lecoq-en ikaskuntza eszenografikoen departamentuan. Parisen geratu, eta hainbat ikastaro egin zituen Théâtre du Mouvement konpainiarekin.

Gaur egun Jérôme Bel-en *The Show Must Go On* ikuskizunaren parte da, eta bere arte-ikerikuntza burutzen ari da, beste hiru artistarekin batera sortu eta ikusizko arteen eta eszenaren arteko elkarrekintzara bideratutako lantegi batean. Artista hauen arteko lankidetzak hainbat bideo, performance, erakusketa eta ikuskizun eskaini ditu Frantzian eta Kanadan. 2002an, Ion Munduate eta Blanca Calvok emandako Mugatxoan lantegian hartu zuen parte, Francisco Tropa, Gary Stevens eta Jennifer Lacey gonbidatuak zirela.

*DESDE**EDURNE RUBIO*

Estreinaldia eta produkzioa
MUGATXOAN 2004

Mendebaldean ohikoa dugu jada lehendik dauden eraikinetan arte garaikiderako espazioak instalatzea, eta horrelakoak ugari dira dagoeneko. Espazio berreskuratuak ote? Moda, erraztasun ekonomikoa edo inoren oroimenaz jabetzea?

Elektrizitateko biltegi ohi eta konde baten bizileku ohi, Arteleku eta Serralves hainbat aldaketa jasan duten tokiak dira: aldaketa funtzionalak, fisikoak... Bertakoek edo "ikusleek" bizi egiten dituzte eraldaketa horiek, are gehiago, eraldaketen zati dira. Nik horien lekukotasunak alderatzen ditut, eta horretarako performer eginkizuna proposatzen diet. Nire lana performancearen eta dokumentalaren arteko hibrido bihurtu da.

Eraikineko sarreran kokatzen gara, eta erabiltzaile guztientzako komuna den espazio honetatik abiatuta, ikusi zuten lehen aldian nolakoa zen eta orain nolakoa den deskriba dezatela eskatzen diet. Eta honen emaitza espazio bera jasotzeko modu desberdinen arteko alderaketa da, alderaketa harrigarria inolaz ere. Deskripzio fisikoak baliatzen dut horretarako: hormak, objektuak, argiak, koloreak... erlazioak agertzen dira, akatsak, proiektuak, oroitzapenak...

EDURNE RUBIO

(Burgos - 1974)

Arte Ederretako ikasketak Euskal Herriko Unibertsitatean egin zituen, Bilbon, eskultura espezialitatean. 1998an Erasmus beka bat jaso zuen, eta horren bidez Belgikara joan zen, Mons-era, ikasketetako bosgarren eta, beraz, azken urtea egitera Art&Environnement de l'Ecole Supérieure de Beaux Arts-en.

Une horretatik aurrera eta orain arte Bruselan bizi izan da. 2000ko urtean, Belgikako Kultur Ministerio frankofonoak arte-ikerikuntzarako beka bat eman zion, urtebeterako.

Bertako erakusketa eta arte-adierazpen askotan hartzen du parte. Diziplina anitzetan egiten du lan: objektuak, instalazioak, argazkiak, performanceak... eta lanotan joera erakusten du erakusketa-tokian bertan esku-hartze edo interbentzioak burutzeko, espazio edota testuinguruarekiko obra espezifikoek. 2002an, Ion Munduate eta Blanca Calvok emandako Mugatxoan lantergia hartu zuen parte, Francisco Tropa, Gary Stevens eta Jennifer Lacey gonbidatuak zirela.

TODOS LOS BUENOS
ESPIAS TIENEN
MI EDAD

JUAN DOMINGUEZ

Juan Domínguezek Espia on guztiak nire adinekoak dira honek obra baten aurretikoa, bitartekoa eta ondorengoa bizi izatera sortu eta interpretatua gonbidatzen gaitu, eta hori guztia aldi berean gainera. Laguntzaile artistikoa: Oraina etorkizuna baita, eta iragana. Ikusleei proposamen bat egiten die, koreografiatarako ideiak sortzen direnetik Cuqui Jerez ideia horiek koreografia bihurtu arteko tartea espia Makillaje eta efektu bereziak: dezatela. Zuzeneko ekitaldietan inplizituki ageri diren Pedro R. De Diego, Irene Puche. identifikazio prozesuak behar al ditugu? Ekintzek Koprodukzioa: azpimarratu egiten dituzte obra bera idaztearen eta Espace Pier Paolo Pasolini irakurtzearen arteko harremanak. Ikusleak aluzinazioen (Valenciennes, Frantzia), galaxiaren barnera igortzen dituzte, ametsen munduaren Madrilgo Erkidegoko Arte bihotzera, irudimenaren espazioan barrena; edo Kontseilaritza eta Cuqui Jerez; pentsamenduen espazioa izango ote hartu-eman estu batez Xavier Le Roy eta In Situ delakoaren zati bat da. Productions-en lankidetzarekin. Ikuskizuna ideiak eraldatzeko prozesuan biltzen da Pieza hau Proyecto 5 (P5) nagusiki. honakoak izan ziren: Anne Passant Tanzwerkstatt (Berlin), Podewil (Berlin, Vooruit (Gante) eta Stuk (Lovaina).

JUAN DOMINGUEZ
(Valladolid - 1964)

Interprete eta koreografoa, dantza klasiko, garaikideko eta bideo arloko prestakuntza jaso duena Espainian eta AEBetan. Beka batzuk jaso zituen, New Yorkeko Movement Research eskolan ikasteko; hiri horretan bertan, dantzaren zenbait teknika ikasiko zituen.

1987az geroztik interprete gisa ari da hainbat konpainiarekin, hala nola Bocanada danza, Blanca Calvo CIA, Los Ballets de Madrid, Carmen Cortés eta Olga Mesa CIArekin. Eta zenbait koreograforekin ere arituko da, besteak beste Iñaki Azpillaga, Cesc Gelabert, Ana Buitrago, La Ribot, Cuqui Jerez, Gilles Jobin, Jerome Bel, Xavier Le Roy eta Tino Shegal-ekin. Koreografi laguntzaile gisa arituko da La Ribot, Gilles Jobin, Carmen Cortés, Olga Mesa eta Cuqui Jerez-ekin. 1993az geroztik dantza eskola eta tailerrak ematen ditu, eta 1992az geroztik bere piezak lantzen ditu, hainbatekiko lankidetzan arituz, besteak beste honakookin: Blanca Calvoren *Los Juan caballos*-en, 1992an; Iñaki Azpillagarekin *7 montañas y 7 ríos* bideo-dantzan, Utray eta Lamadrid-ek 1993an zuzenduan; Ana Buitragorekin *Retazos*-en, 1996an; Susana Casenave-rekin *Peces*-en, 1996an; eta Carmen Cortes-ekin *Así que pasen 100 Años* lanean, 1998an. Bere aldetik dantza-bideo batzuk sortu ditu, hala nola: *Un jarro de agua fría*, 1993an; Bradou, 1994an, eta *Jarabe Tapatio*, 1995ean. Beste pieza batzuk ere eginak ditu: *Pollo directamente*, 1995ean; *El Pelirrojo*, 1997an; *The taste is mine*, 2000n, eta *Todos los buenos espías tienen mi edad*, 2002an.

*DEATH IS CERTAIN**EVA MEYER KELLER*

Gereziek azal leuna dute, mamia, eta erdian hezur gisako bat. Zukua gorria da, odola bezalakoa. Pertsonak batzuetan pertsonak tratatzen dituzten moduan tratatzen dituztenean, haiek ere, gereziak, pertsona bihurtzen dira - edo identifikaziorako gonbitea egiten duten objektu bizidun behintzat.

Objektuak bizidun bihurtzen diren ipuinak inspirazio iturritzat harturik, horrelakoetan objektuak norberaren fantasia eta esperientziak proiektatzeko eremu bihurtzen baitira, Eva Meyer-Keller-ek gerezi gozoak *Death is Certain* performancearen protagonista bihurtu ditu. Fruituei txortena kendu, baina ez dituzte garbitzen ez hezurra kentzen ere. Horren orde, akabatu egiten dituzte. Eskulangile baten arretaz egiten du lana, eta egunerokoa gauza ikaragarria bilakatzen da. Begira denari literaturako eta zineko heriotzak datozkio gogora, baina baita exekuzioen errealitate gordina ere, egiaz gertatzen diren moduan alegia: banakako zein taldekako esperientzia multzoak eragindako asoziazioak, sukaldeko mahaiko heriotza gozoa ikustean..

*EVA MEYER KELLER**(Berlin - 1972)*

Normalean performancearen esparruan aritzen da lanean, eta bere lana Europa eta Amerikako galeria eta antzokietan aurkeztu du. *School for New Dance Development* (SNDD, Amsterdam) delakoan graduatu aurretik, argazkia eta ikusizko arteak ikasi zituen Berlin eta Londresen. Evaren lana aldakorra da. Sarritan proiektu batean baino gehiagotan aritzen da aldi berean, performanceak egiten ditu, bideo-lanak, eta jaialdi eta ekitaldiak antolatzen ditu. Interpretate gisa ere aritu da hainbat proiektu edo talderentzat, esate baterako *Baktruppen* eta *Christine de Smedt/Les Ballets C de la B*-rentzat. Gaur egun beste performance batean ari da lanean *Uta Eisenreich* eta *Alexandra Bachzetsis*-ekin; hauekin batean *Karen Elliot* konpainia osatzen du.

*0 TÂCHE(S)
SUR 1 ONT ÉTÉ
EFFECTUÉE(S)
CORRECTEMENT*

GRAND MAGASIN

“0 tâche sur une ont été effectuée(s) correctement” (batetik 0 eginkizun burutu dira behar bezala) ikuskizunaz geroztik, Grand Magasin-ek honako galdera planteatzen dio bere buruari: Zer ari da hemen gertatzen? Etengabe berritzen ari den galdera honi erantzuteko, Gran Magasinek ahalegina egiten du aretoko lau hormen artean gertatzen dena deskribatzeko. Dena den, alferrekoa izango litzateke toki jakin batean une zehatz batean gertatzen den guztia atzematen ahalegintzea. Halatan, bada, apropos utziko da, edo nahigabe agian, informazio pila bat bazterrean.

Agidanez, giza garunak oso zorrozki aukeratzen du gure zentzumenetara iristen den informazio pila itzelean, beraz, jasotako irudien, aditutako soinuen zati txiki- txiki bat besterik ez da iristen gure kontzientziara. Iragazki hau, irakurria baitugu, ez da luxuzko kontu bat, bizi izateko beharrezko gauza bat baizik; izan ere, hori gabe berehala egongo ginateke diren sentrazio guztien zurrunbiloan sartuta, eta ezinezkoa izango litzaiguke inolako hitz, inolako pentsamendu, inolako jarduera koherenterik gauzatzea.

*GRAND MAGASIN
(Paris)*

Pascale Murtin eta François Hiffler-ek osatu proiektu artistikoa. Bere estreinako pieza 1982an estreinatu zuten, eta harrezkero, gaur arte, 26 pieza egin dituzte. Artista frantziar hauen helburua berek ikusi nahi lituzketen ikuskizunak produzitzea eta sortzea da, eta uste dute posible dela beste batzuek ere entusiasmoa sentitzea lortutako emaitzagatik.

TITULORIK GABE
(2001)

TINO SEHGAL

“Agian egun arteko bere lanik ezagunena UNTITLED (2001) da, lehenengoz Estokolmoko Moderna Museeten aurkeztu zena 2001ean. Sehgaiek obra bat egin nahi zuen inolako esanahirik ez zuena bere edukiarri edo formari dagokionez, baina funtsean dantzako inguruari atxikitako berariazko produkzio forma bat adieraztean erdiratuko zena. UNTITLEDen berak dantzatzen du pieza bat eta argi lotzen ditu museoaren erakunde testuingurua eta bere arte artxibo funtzioa dantzaren testuingurura. Sehgaiek egiten duena nahiko sinplea da, baina bikaina bere kontzeptu konplexutasunean. Bere burua museo bihurtzen du, dantza museo bat”.

*Hau da Tino Seghal, Jenns Hoffmanen eskutik.
Parkett # 68, 2003ko iraila.*

TINO SEHGAL
(Londres - 1976)

Ikasketak: 1994-1998 Folkwang Hochschule Essen (dantza).
1994 gerotik Humboldt Universität Berlin /Universität
Essen (ekonomia politikoa)
Erakusketak (aukeraketa):
2003: 24/7, CAC, Vilnius. *This is wrong*, Wrong Gallery,
New York. Utopia Station, Veneziako 50. Bienala.
Spectacular, Museum Kunst Palast, Düsseldorf (kat.).*Open
the curtain*, Kunsthalle Kiel. Kunstpreis der
Böttcherstrasse in Bremen, Kunsthalle Bremen (kat.). *Le
plein*, Galerie Jan Mot, Brussels. *Adiétéromachie*, Palais
de Tokyo, Paris.
2002: *I promise it's political*, Museum Ludwig, Köln
(kat.). *This is propaganda*, Württembergischer Kunstverein,
Stuttgart. Manifesta 4, Städel Museum, Frankfurt (kat.).
Do it, www.e-flux.com
2001: *Do it*, Museo de Arte Carillo Gil, Mexiko (kat.). *A
Little Bit Of History Repeated*, Kunst-Werke, Berlin
(kat.). Nouvelle Danse, Musée d'art contemporain,
Montreal.
Jaialdiak (aukeraketa):
2002: *Dispositif conférences*, Musée des Beaux-Arts,
Nantes. *C.A.P.I.T.A.L.S.*, Gulbenkian Foundation, Lissabon.
Performance Start, Württembergischer Kunstverein.
2001: *Podewil*, Berlin. *Les Inaccotumés 11/12*, Menagerie de
Verre, Paris. curtain raiser, Künstlerhaus Mousonturm,
Frankfurt. Junge Hunde, Kanonhallen, Kopenhagen:(*lanerako
titulua*), KunstenFestival des Arts, Brüssel .Tanzraum 2,
Markgrafentheater, Erlangen
2000: *SoloDuo*, Theater am Halleschen Ufer, Berlin; Moderna
Danstheatern, Stockholm

MUGATXOAN

Arte zuzendaritza: *ION MUNDUATE* y *BLANCA CALVO*.
Kordinazioa: *TERESA CARRANZA*.
Diseinu grafikoa: *JOAQUÍN GAÑEZ*.
Web: *CHERBURGO*.

ARTELEKU

Zuzendaritza: *SANTIAGO ERASO*.
Kudeaketa ekonomikoa: *LOURDES URRUTIA*
Programa koordinatzailea: *AMALUR GAZTAÑAGA*.
Administrazioa: *GEMMA GIL* y *NATALIA BARBERIA*.
Dokumentazioa eta argitalpenak: *MIREN ERASO*.
Liburutegia: *GORETTI ARRILLAGA* y *MIKEL ALBERDI*.
Mantentze-lanetarako teknikariak: *JOSÉ RAMÓN OLASAGASTI / LUIS CARRERA*.

FUNDAÇÃO SERRALVES

Zuzendari orokorra: *ODETE PATRÍCIO*.
Museoko zuzendaria: *JOÃO FERNANDES*.
Museoko zuzendari laguntzailea: *ULRICH LOOCK*.

AUDITÓRIO SERRALVES SERVIÇO DE ARTES PERFORMATIVAS

Dantza Programazioa: *CRISTINA GRANDE*.
Musika Programazioa: *PEDRO ROCHA*.
Ekoizpena: *CRISTINA GRANDE, PEDRO ROCHA*.
Produkzio laguntza: *FRANCISCO MALHEIRO*.
Argia: *JOSÉ NUNO FERNÁNDEZ*.
Soinua: *NUNO ARAGÃO*.
Zinema eta bideoa: *VASCO N. RIOBOM*.

EKOIZPENA:



Zabaleta 49. 4º Izq.
20002. Donostia - San Sebastián.
T. 00 34 943 270 456
e-mail: info@mugatxoan.org
www.mugatxoan.org



Kristobaldegi 14.
20014. Donostia - San Sebastián
www.arteleku.net



R. D. João de Castro, 210.
4150 - 417. Porto.
www.serralves.pt

LAGUNTZAILEAK:



Association Française d'Action Artistique
A F A A
Ministère des Affaires Étrangères

